

PRENTSAURREKORAKO DEIALDIA

Laburpena

- Funtsa:** REASek Estatuan dauden Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareen inguruko txostena aurkezten du
- Izenburua:** ***Gizarte eraldaketarako ekonomia solidarioa***
- Data:** 2008ko urriak 29
- Lekua:** REAS Euskadiren egoitza (Ekain koben kalea 3, 1. - Askao-Foruak kaleetatik Plaza Barrira doan kantoia)
- Ordua:** 11:00
- Antolatzailea:** REAS Euskadi
- Laguntzailea:** Lan eta inmigrazio ministerioa

Prentsa oharra

Mundu mailako ekonomia eta finantza krisia dela eta, ezin hobeto datoz milaka pertsonen artean benetako beste modelu bat sortzen duten alternatiba ekonomikoen inguruko berriak.

Aurkezten dugun txostena medio, ekonomia pertsonen eta gizartearen garapenaren zerbitzura dagoen baliabide – eta ez helburu – bezala deskribatzen duen eta bertako, estatuko eta mundu mailako gizarte mugimendua den Ekonomia Solidarioa ezagutzera eman nahi da.

Ekonomia solidarioa ekoizpen, kontsumo, finantziario, komertzio eta kultura alternatiba da. Eta, aldi berean, giza garapen iraunkorra eta partehartzailea sustatzen duen gizarte eraldaketarako tresna bat ere bada.

Gaira garamatzen txosnenak urtero 170 milioi euroko irabaziak mugitzen dituzten 9.235 pertsonako 215 erakunde, ekimen eta esperientzia daudela estatuan erakusten du.

Erakunde horiek REASen barrutiko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren hamairu saretan biltzen dira.

Gizarte eta ekonomia mugimendu honen lehentasunak ere zehazten dira, beren balore, koherentzia, lan egiten duten ekonomia-sektoreen aniztasun eta lan-ildoekin batera.

Eta amaitzeko sare globalen eraikuntzarekin eta partehartzearekin duten harremana eta gizartearenganako lehioa (<http://www.economiasolidaria.org>) azaltzen dira. Azken puntu horretan edozein pertsona sartu daiteke eta mugimenduaren sustapen lagundu.

Azkenik, REAS Euskadiren datuak ere aurkeztuko dira: 995 langile eta 2.000 boluntario baino gehiago batu eta 46 milioi euro dituzten 40 erakunde.

Informazio gehiago:

Argitalpenaren datuak: <http://www.economiasolidaria.org/node/1483>

Gerturatzen diren pertsonen argitalpen bana eskainiko zaie